

Santio jaietan, droga ilegalen kontsumoen arriskuez ariko dira

Ai Laket!! elkartearen eta Villabonako Udalaren arteko lankidetzari esker, uztailaren 26an, Testing programa gauzatu, eta besteak beste, informazio mahaia jarriko dute Errebote plazan // 3

Jokin Etxeberria eta Andoni Goikoetxea Gipuzkoako txapelaren bila

Gipuzkoako Segia Txapelketaren finala igandean jokatu da Asteasuko Bulano baserriko zelaietan; eskualdekoekin batera Gabirondo eta Esnaola ariko dira lehian // 7

Doinu latinoen erritmora egingo dute dantza, etzi, Zerkausian

Tolosalsa taldeak larunbatean hitzordu berezia du, 16:00etatik aurrera; urritik, hilean behin Tolosako kultur etxean elkartzen dira // 2

Altzoko plazan eta pantaila handian, 'Handia' filma eskainiko dute

Migel Joakin Eleizegi Altzoko Handia jaio zela 200 urte beteko dira hilaren 10ean; lehen aldiz, filma herrian ikusteko aukera izango da, bihar // 5



MIKEL IRAOLA

«Izugarria da euskal giroa kaleratzea niretzat; herria egiteko modu bat da»

EVARISTO ELDUAIEN TOLOSA KANTARIKO KIDEA

Tolosa Kantarik hamar urte bete ditu, eta ospakizun berezia egin berri dute; Evaristo Elduaienek ez du kantu jira utziko, baina bai gidaritza lana: «Poz handia hartuko nuke gazteak euren kantekin kalera ateratzen hasiko balira». // 4

Hitzarmena berritu dute udalak eta Tolosa&Cok

Erredakzioa

Tolosako Udalak eta Tolosa&Co merkatari eta ostalari elkarteak urtebeterako berritu dute lankidetza hitzarmena. Udalak 30.000 euroko diru-laguntza eman dio elkarteari, sektoreari begirako proiektuak eta jarduerak garatzeko. Olatz Peon alkateak eta Mireia Carceller elkartearen lehendakariak sinatu dute hitzarmena.

Tolosako Udalaren eta Tolosa&Co elkartearen arteko «lankidetzarako eremu egonkor bat sortzea» da hitzarmenaren helburu nagusia, udalerriko garapen ekonomikoan eta enpleguan, merkataritza, zerbitzuak

eta ostalaritza «giltzarri» direla iritzita.

Tolosako Udalak merkatari-tzari eta ostalaritzari bultzada ematen jarraitu nahi duela adierazi du: «Tolosa&Cok sektore komertziala, zerbitzuena eta ostalaritzarena bere osotasunean biltzen eta ordezkatzeko ditugu, eta entitate erreferentea da», aitortu du Olatz Peon alkateak.

Peonen ustez, Tolosa&Corekin elkarlanean jardutea «ezinbestekoa» da: «Berrikuntza bultzatu, era koordinatuan proiektu komunak martxan jarri, eta azken finean, sektorearen beharrei erantzuneko dieten jarduerak elkarlanean garatu behar ditugu».



Mireia Carceller eta Olatz Peon, hitzarmena sinatzen. TOLOSAKO UDALA

Sanjoanen balorazio bilera, gaur

FESTAK // San Joan jaien balorazio bilera izango da, gaur, 19:30ean, Tolosako kultur etxean. Aurtengo jaiez hausnartu eta herritarren iritzia jaso nahi du udalak. Bertaratu ezin duenak festak@tolosa.eus helbidera bere iritzia bidali ahal izango du.

Hilaren 15era bitarte, Tolosanklisk zabalik

KULTURA // Tolosanklisk argazki lehiaketara irudiak bidaltzeko azken eguna uztailaren 15a izango da, 2019ko egutegia osatzeko. *Tolosa berdea* izango da gaia, eta beharrezko argibideak tolosa.eus webgunean daude eskuragarri.



Ikasturte hasieraz geroztik, Tolosako kideak hilean behin bildu izan dira, kultur etxean. ATARIA

Erritmo eta pauso latinoek hartuko dute Zerkausia, larunbatean

Tolosalsa taldea joan den urrian hasi zen, hilero, kultur etxeko areto nagusia dantzarako pista bilakatzen; eskualdeko nahiz kanpoko jendea elkartzen da, dantzarako

Itzea Urkizu Arsuaga

Txanpa taberna eta Fronton kafetegia zituzten, lehen, dantzarako pista. Pixkana, ordea, desagertzen joan ziren dantza latinoak egin ahal izateko tokiak. Hutsune horri erantzunez, horrela, Tolosalsa elkarteak ikasturte osoa darama, hilean behin, kultur etxeko areto nagusia dantzarako areto bilakatzen. Larunbatean, uda giroa baliatuz, Zerkausia izango dute hitzordua, 16:00etatik 20:00etara bitarte.

Jose Ramon Ugartemendia egitasmoaren sustatzailea da, eta Jesuitinetan hasi zen, dantza latinoak ikasten: «Taldea beterrano bat aritzen da, eta ni duela bospasei urte hasi nintzen bertan, ikasten. Lehen Txanpan elkartzen ginen, ostegunetan, eta Fronton kafetegian gero. Giro polita izaten zen, baina galdu

egin zen ohitura. Hemen inguruan dantzarako beste lekurik ez zenez, zerbait antolatzea pentsatu nuen».

Beharrezko hariak mugitu eta, joan den urriaz geroztik, Tolosako kultur etxeko areto nagusia dantza latindarren pista bilakatzen da, hilean behin: «Gure asmoa maiztasuna finkatzea da, adibidez, Tolosa Kantarik egiten duen bezala. Ordea, aretoa askotan hartuta izaten da, eta ezin izaten dugu nahi dugunean erabili».

Leihoak zabalik egiten dute dantza hitzordu horietan, talde-eratu nahi duen jendeak dantzan ikus ditzan, eta jakin-mina piztu dadin. Asteburuan, ordea, leihoak zabaltzetik, kalean aritzera pasako dira: «Iaz ere antolatatu genuen zerbait, Urnietako taldearekin. Udan bero egiten du barruan, eta kanpoan aritzeko,

berriz, giro bikaina», dio Ugartemendiak.

Espazio handiago batean aritzea ere eskertuko dute larunbatean, izan ere, 150 pertsona inguru elkartzen dira, eskualdekoen eta eskualdez kanpokoaren artean; Urnietatik, Andoaindik, Legorretatik, Donostiatik nahiz Ondarroatik bertaraten da jendea, dantzara.

Eta, dantzarako, doinu latinoen erritmora aritzea da baldintza bakarra, Joxi Fernandez, DJaren eskutik: «Bada maila handia duen jendea, eta bada dantza nola-hala egiten duen jendea ere. Baina gure asmoa ez da klaseak ematea, dantza egitea baizik. Salsa egiten dugu, batez ere, eta noizbehinka bestelako erritmoei proba egiten dugu».

Horrela, beraz, Tolosalsa taldeko kideek dantza egin nahi duen edonor gonbidatu nahi dute datozen hitzorduetara: «Erritmo pixka bat dutenek, ezer jakin gabe ere, bikote batekin segituan hartuko dute dantza latinoen dinamika». Etzi, 16:00etatik aurrera izango da aukera eta, gainerakoan, [facebook.com/SalsaTolosa](https://www.facebook.com/SalsaTolosa) orrialdean iragartzen dituzte hitzorduak.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en

Ataria Pilota Txapelketa saskiaren zenbaki irabazlea: **1515**. Saridunak ostiral arteko epea du saskia Ataria-ko erredakzioan jasotzeko. San Esteban, 20. Tolosa.



Udal ordezkariak eta Ai Laket!! elkartekoak Villabonako festetan izango den karabanaren aldamenean. J.M.

Sendagaien erabilera hobetuko duen programa

Amasa-Villabonako Etxeko Laguntza Zerbitzuko 11 erabiltzailek, tratamenduaren jarraipena eta dosi pertsonalizatuak jasoko dituzte

Erredakzioa Amasa-Villabona

Eusko Jaurlaritzako Farmaziako zuzendari Iñaki Betolazak, Villabonako alkate Maite Izagirrek eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko lehendakari Angel Garayk hitzarmen bat sinatu dute, zeinaren bitartez Villabonak bat egiten duen Etxeko Laguntza Zerbitzuko erabiltzaileen artean sendagaien erabilera hobetzeko programarekin.

Helburu nagusia da herriko Etxeko Laguntza Zerbitzuko erabiltzaileen artean sendagaien eskuraztea erraztea eta tratamendua zuzen betetzen dutela bermatzea. Horrez gain, etxeko laguntzailearen edo zaintzailearen lanean lagundu nahi da, sendagaiak erosi, kontserbatu eta hartzeari lotutako alderdi guztietan. Izan ere, gaixotasun kronikoak dituzten lagunen %50-%60 inguruk ez du tratamendua zuzen betetzen.

Funtzionamendua

Udaleko Gizarte Zerbitzuek parte hartuko duten erabiltzaileak aukeratzen dituzte, Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen dutenen artean, eta erabiltzaileek, berriz, baimena eman behar dute programan sartu aurretik. Ondoren, erabiltzaileak farmazia aukeratzen du, eta elkarrizketa bat egiten zaio, fitxa bat betetzeko, hartzen duen medikazioari eta dituen osasun arazoei buruzko informazio guztiarekin. Hamabostean behin edo astean behin, farmazialariak medikazioa prestatu eta entregatzen dio pazientari, senideari edo zaintzaileari, dosiak pertsonalizatuta. Horretarako, dosifikatzeko sistema pertsonalizatuak erabiltzen dira tresna gisa (DSP), non pazienteak eguneko une bako-

tzean hartu behar dituen konprimituak jartzen diren, dosia zuzen emateko beharrezko informazioarekin batera.

Eusko Jaurlaritzako Farmazia zuzendari Iñaki Betolazak azpimarratu duenez, horrelako programak oso garrantzitsuak dira tratamendu farmakologikoaren segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzeko, pazienteen eta senideen mesedetan. Villabonako alkate Maite Izagirrek ere positibo baloratu du Villabonak programarekin bat egitea. Baiez-tatu duenez, «medikamentuen erabilera hobetzeko lankidetzak hitzarmenak, nire iritziz, garrantzi hirukoitzak dauka: lehenik eta behin, tokiko erakundeen eta Eusko Jaurlaritza bezalako erakunde komunaren arteko lankidetzak lerroa indartzen du, kudeaketa publikoa etengabe hobetzeko eredu batean sakontzeko. Bigarrenik, lankidetzak publiko-pribatuaren ekintza lerroa indartzen du, oso emaitza onak ematen ari baita gipuzkoar zein euskal gizartean. Eta, hirugarrenik, aukera emango du laguntzeko behar handia duten herritarrek euren bizitza kalitatea hobetzeko, arreta farmazeutiko pertsonalizatu eta eraginkor baten bidez». Alkateak jakinarazi du Amasa-Villabonako Etxeko Laguntza Zerbitzua 11 erabiltzaile-rengana zuzenduko dela, nahiz eta eskaintza zabaltzea den etorkizuneko asmoa.

Angel Garay COFGko jarduneko lehendakariak gogoratu duenez, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoaren apustua da medikamentuak erabiltzen dituzten pertsonen osasuna hobetzen lagunduko duten zerbitzuak ezartzeko, tratamendua betetzen laguntzeko eta, gainera, baliabide ekonomikoak liberatzeko.

Drogen analisisia egiteko aukera izango da aurtengo Santio jaietan

Ai Laket!!-en autokarabana hurbilduko da uztailearen 26an, 23:00etatik 02:00etara Errebote plazara, eta substantzia ilegalen testa eta analisisia egiteko aukera izango da bertan

Jon Miranda Amasa-Villabona

Ai Laket!! elkartearen eta Villabonako Udalaren arteko lankidetzari esker programa hau martxan jarri ahal izango da, lehen aldiz, aurtengo Santio festetan. «Udal aurrekontuan txertatu bezala, drogei buruzko programa hau burutuko dugu aurtengo jaietan», esan du Eneko Urdangarin Ongizate zinegotziak.

Ai Laket!! 1998an sortu zen kolektibo bezala eta 2002. urtean irabazi asmorik gabeko elkarte bezala eratu zen. Droga ilegalen kontsumitzaileek eta kontsumitzaile ohiek osatzen dute, eta kontsumoarekiko duten jarrera, «neutro eta ez-morala» dela aipatu du elkarteko kide Ainhoa Maillo Sesmak. «Drogen kontsumoa badago, egia da ez dela beti kontsumo arriskutsua izaten, baina aukera badago horretarako. Guk kontsumo arduratsua bultzatzen dugu».

Proiektu asko gauzatzen dituzte Ai Laket!! elkartekoek eta horien artean dago Testing izeneko programa. «Droga ilegalen erabiltzaileen kezka handieneta-

koa substantzien adulterazioa da, osasun arriskuak sor ditzake-elako», dio Maillo Sesmak. Horregatik programa honen bitartez erabiltzaileei ohartarazi nahi zaie substantzia ilegalen inguruko osasun kontrol ezaz. Arriskuak murrizteko kontzeptuak zabaltzeko, eta batez ere, hausnarketa piztu nahi dute elkartetik, kontsumoaren zergatiak, biltzen diren helburuak eta substantziak erabiltzeko dauden moduei buruz gogoeta egin dezaten. «Informazio zehatz eta objektiboa eskaintzen dugu, erabiltzaileak kontsumoarekin lotutako arriskuak hobeto kudea ditzan».

AUTOKARABANA ETA KARPA

Testing programak aisialdian kontsumitzen duten era guztietako pertsonengana iritsi nahi du eta horregatik kontsumoa egiten den lekuetara joaten da: jaietara, kontzertu eta jaialdi handietara. Aurtun, lehen aldiz, Santio festetan izango da Ai Laket!! elkartearen autokarabana, uztailearen 26an, 23:00etatik aurrera Errebote plazan.

Autokarabana ondoan karpa bat jarriko dute eta informazioa banatu. «Erabiltzaileei harrera egingo diegu, galdetegia egin, dauden aktibitateen berri eman eta zalantzak argitzen saiatuko gara. Beharrezkoa izatekotan, autokarabanara zuzenduko gara testa edo informazio pertsonalizatua emateko». Ai Laket!! taldearen autokaraban jai giroko esparruetan gaur egun kontsumitzen diren substantzia arruntak testak egiten dira: kalama, anfetamina edo speeda, kokaina, MDMA edo estasia, ketamina... «Horretarako mikroskopioa, test kolorimetrikoak eta kromatografia erabiltzen dira», aipatu du Maillo Sesmak. Laginak hartzen dira laborategira bidaltzeko, han analisi kimiko estandarra eginez dosi zehatza eta adulteratzaileen presentzia egiaztatzen da.

Substantzien testa da programaren ekintza nagusia eta balizko erabiltzaileak erakartzeko faktore nagusia izan arren, proiektuak prebentzio zein arrisku murrizketarako bestelako saioak ere hartzen ditu kontuan.

Tolosa Kantarik tinko eusten dio hileko hitzorduari

Kantu jirak 10 urte bete ditu eta ospakizun berezia egin zuten larunbatean; datorren ikasturtean jarraituko dute hileko azken larunbatetan biltzen

Erredakzioa

Kantu jira berezia izan zen ekainekoa. Tolosa Kantariko kideak hileko azken larunbatean biltzen dira eta azkena 10. urteurrena ospatzeko baliatu zuten. Tolosa Kantariren abestiak dioen bezala *Hilaren azken larunbata da, bildu gera jende ugari, alaitasuna eman nahirikan, kantu jiran Tolosari*. Ohi bezala Tontokalen bildu ziren eguerdian eta Tolosako kaleak kantuz bete eta gero Jesuitinetako patioan elkartu ziren bazkaltzeko.

Duela 10 urte sortu zuten beraz, Tolosa Kantari eta hasiera gorabeheratsua izan bazuen ere, gaur-gaurkoz jende asko biltzen da bai kantatzeko eta baita kantu jirarekin gozatzeko ere. Lehen pauso horiek finkatzen joan ziren Evaristo Elduaien zuzendaria iristearekin batera. Gerora Arantxa Yuguerosek hartu zuen egitekoa.

Abestea maite duten herritarrek biltzen dira kantu jiran eta akordeoia dituzte lagun. Ez da antolatutako talde itxi bat, eta hitzordua jarrita euskarazko abestiak kantatzeko gogoia dute guztiek egin dezakete bat kantu jirarekin. Lizardi elkarteko eta Amarotz auzoko hainbat lagunek jarri zuten martxan duela hamar-kada bat, eta ordutik geroztik eta jende gehiago animatu da hileko azken larunbatean Tolosako kaleetan kantatzera. Batzaz beste, 100 pertsona biltzen dira.

Tolosa Kantari arrakastatsua izaten ari da eta parte hartzaileek diotenez kantatzea maite duen talde ireki eta zabala osatzen dutelako da. *Euskal giroa nabaritzen da, bihotz ezipain eta begi, aurrerantzean jarrai dezala, tinko Tolosa Kantarik*, dio kantak bukatzeko. Eta 10 urte hauetako ibilbidea ikusita, seguru horrela dela, eta kantu jirak tinko eutsiko diola hileroko hitzorduari.



Jende ugari bildu zen kantu jiraren 10. urteurrenako ekitaldian. M. IRAOLA



«Zoriontasuneko 10 urte izan dira, jendeak erantzun du eta gu oso pozik gaude»

EVARISTO ELDUAIEN
TOLOSA KANTARI

Mikel Iraola

10 urte eta gero Tolosa Kantari-ko gidaritza utziko du Evaristo

Elduaien tolosarrak. Ez du kantu jira utziko dena den, ez du hileko azken larunbatetan hutsik egiteko asmorik. Belaunaldi aldaketa ere aldarrikatzen du eta esan du ondo legokeela gazte jendeak beste egun bat hartu, euren gustuko kantak prestatu, eta euskal giroa zabaltzen jarraitzeko beste hitzordu bat jartzea. **Nolakoak izan dira hamar urte hauek?**

Ez genuen espero ibilbide hau egitea eta oso pozik gaude. Zoriontasuneko 10 urte izan dira. Jendeak erantzun du eta gu ere saiatu gara, eta oso pozik gaude. **10 urte hauetan egon zara, nola gogoratzen dituzu lehen pauso haiek?**

Amarotzen bazegoen talde bat tarteka bildu eta entseatzen zue-na, eta kalean kantatu zezaketela pentsatu zuten. Sanjoanetan atera ziren kalera eta ni horrela jabetu nintzen. Hitzordura azaldu eta horrela animatu nintzen ni. 40 bat elkartu ginen eta horrek au-



Goierrikoekin batera egin zuten kantu jira pasa den urrian. J. MIRANDA

rrera segitu behar zuela pentsatu genuen. Data bat aukeratzeagatik hileko azken larunbata aukeratu genuen eta horrela segitu dugu. Tontokaletik ateratzea erabaki genuen eta aurrera.

Urte hauetan hitzordua indartzen joan da?

Oso kontentu gaude jendeak Tolosa Kantariri eman dion babesarengatik, geroztik eta jende gehiago animatu da eta oso pozik gaude, bestela ez genuen jarraituko.

Zer da zuretzat Tolosa Kantari?

Niretzat izugarria da euskal giroa kaleratzea. Egia esan adineko jendea gara batik bat, eta guretzat lehengo ohiturak berreskuratzea ere bada. Lehen kantatzeko ohitura gehiago zegoen. Une berean etxetik ateratzeko eta lagunartean biltzeko aitzakia ere bada. Eta baita herria egiteko modu bat ere.

10 urtetan gidaritza eraman eta gero utzi egingo duzu.

Gidaritza utziko dut eta baita soi-

nuarekin joatearena ere, baina kantatzera joango naiz. Adinarekin gazteei lekua utzi behar zaie. Eskerrak eman behar dizkiet jarraitzen dutenei; gidaritza hartzen duena gaztea da eta gainera bi neska gazte sartu dira soinuarekin. Aurrera jarraitzeko eskatu nahi diet.

Eta zer eskatzen diozu Tolosa Kantariri?

Gauza bakarra, jarraitzeko. Euskal giroa kalera atera eta pozik jarraitu dezala.

Belaunaldi aldaketa ematea ere nahi duzu...

Badakigu guk abesten ditugun abestiekin belaunaldi gazte berria sartzea zaila dela, baina poz handia hartuko nuke gazteak euren kanteekin kalera ateratzen hasten badira. Euskal giroa sortu dezatela, hori gustatuko litzaidake. Egia da gu haien kanteekin ez ginatekeela moldatuko, eta berdin alderantziz, baina hartu dezatela beste egun bat eta ateratzeko kalera.

Martin Iraolaren margolanak ikusgai Erretirodunen tabernan

Arantzazuko santutegiari buruzko koadroa nabarmendu du, datorren astean erakusketara gehituko duena

I. Garcia Landa Alegia

Ez da lehenengo aldia Martin Iraola alegiarrak bere margolanak erakusten dituela Erretirodunen tabernan. Gustuko du besteeke egiten dituzten koadroak ikustea, eta Erretirodunen tabernan bereak erakusteko aukera moduan hartzen du. Erakusketak gutxienez uztailaren egongo da ikusgai.

Tolosako kultur etxeko taillerretan ikasten du Iraolak, eta bertan egindako koadro bat nabarmendu du batez ere. Orain

Tolosako Aranburu jauregian ikusgai dago koadro hori, taillerreko beste lanekin batera, baina datorren astetik aurrera Alegia-ko Erretirodunen tabernan ikusi ahalko da. Koadro horretan Arantzazuko santutegiaren hainbat elementu jartzen ditu batera. «Nolabait esateko, kritika bat da», esan du Iraolak. «Santutegia egin zen garaian sekulako miseria zegoen, eta han dirua barra-barra sartu zen».

Beste bi koadrotan, adibidez, *transfer* teknika erabiliz argazkiak sartu ditu margolanetan. Horietako batean Paco Etxeberrria auzi medikua agertzen da, eta bestean, Hego Amerikako mapa baten gainean, «lau pertsonaia iraultzaile»: Che Guevara, Ignacio Ellacuria, Romero ar-tzapezpikua eta Pepe Mujika.



Martin Iraolaren bi margolan. ATARIA



'Handia' filmaren fotograma bat. ATARIA

‘Handia’, pantaila handian eta plazan

Migel Joakin Eleizegi Altzoko Handia jaio zela 200 urte beteko dira uztailaren 10ean, datorren asteartean

Imanol Garcia Landa Altzo

Bi mende beteko dira Migel Joakin Eleizegi, Altzoko Handia, jaio zela Ipintza Haundi base-rrian. Zehazki datorren asteartean izango da hori, uztailaren 10ean. Hori dela eta, Altzoko Udaletik ekitaldia prestatu dute biharko: pantaila handian, herriko plazan eta 22:30ean, ikusi ahalko da *Handia* filma.

Emanaldirako gonbidatu bereziak izango dira. Jon Garaño filmaren zuzendarietako bat bertan izango da, eta baliteke Xabier Berzosa produktorea ere azaltzea. Herritar ugarik ikusi dute *Handia* filma, bai Zinemaldian, zein Tolosako Leidor aretoan, zinema aretoetan estreinatu aurreko emanaldian. Baina biharkoa lehenengo aldia izango da Altzon bertan ikusi ahalko dena. Lurdes Murua Kultura zinegotziak azaldu duenez, «herrian ikustekak beste xarma bat du. Gainera, lehenengo aldia izango da pantaila handi bat jartzen dela plazan pelikula bat

ikusteko». Bestalde, gonbidatuei galderak egiteko aukera izango dela nabarmendu du.

Pantailak 8 x 5 metroko neurriak ditu, eta eguraldi ona iragarrita dagoenez, emanaldia plazan egitea aurreikusten dute. Eguraldi txarra izanez gero, frontoian izango da saioa.

URTEKARIAREN AURKEZPENA

Handia filmaren emanaldi berezia egingo dela aprobetxatuz, bihar bertan kultura batzordeak 2017ko Urtekariaren aurkezpena egingo du. 20:00etan izango da, Batzarremuñon.

Besteak beste, Errepublika garaiari eta frontoiaren 50. urteurrenari buruzko artikuluak dau- de urtekarian. «Lan asko suposatzen duen argitalpena da, eta berezia da herritarren artean egiten delako», esan du Muruak. «Jendea zain egoten da urtekaria jasotzeko. Altxor bat da herriarentzat, bertako hainbat informazio bilduta geratzen baita bertan, eta gero askotan urtekaria jotzen dugu herrian gertatu zena jakiteko».

Aurkezpenean jaso ahalko da urtekaria eta etxeetara ere banatuko da. Bestalde, lehiaketa bat izaten da urtekarian, ikusmina sortzen duena herrian: argitalpenean azaltzen den informa-



2017ko urtekariaren azala. ATARIA

zioaren inguruan galdetegi bat jartzen da eta uztailaren 20rako erantzun behar da. Zuzen erantzuten dutenen artean Elkar dendetan gastatzeko bi erosketa bonu zozkatzen dira.

GUTXIAGO FALTA DA JAIETARAKO

Altzoko San Inazio jaiak uztailaren 28tik 31ra izango dira. Festak gero eta gertuago dauden seinalea izaten da Frontoi Zaharreko Pilota Txapelketa. Aurten 22. aldiz ari dira jokatzeko. Partidak hasi dira, eta uztailaren 21ean, festen Girotze Egunean, egingo dira finalerdiak. Ondoren, finala, uztailaren 30ean egingo da, arratsaldean.



«IZUGARRIZKO ILUSIOA»

Tolosako Azokako saskia azken zozketan Alegiaraino iritsi da, Mirari Mendizabalen eskuetarraino. Arantxa Garaiburu ekoizleak eman dio bertako produktuez osatutako oparia Tolosako Azokan bertan. Pozez jaso zuen emaitza alegiarrak: «Ez daukat ohiturarik zozketetan parte hartzeko, behin parte hartu, saria irabazi eta izugarrizko ilusioa egin dit. Gehiagotan parte hartu beharko dut». MIKEL IRAOLA

Igandera arte eman daiteke izena Frontoi Txikiko txapelketan

IKAZTEGIETA // Hilaren 8a da Frontoi Txikiko txapelketan izena emateko azken eguna eta Ostaturun eman behar da. Ikaztegieta festetan izango da finala eta herritarrek bakarrik hartu dezakete parte. Hiru mailatan ariko dira: 13 urtetik gorako mutilak, 13 urtetik gorako neskek eta 7-12 urte arteko neskek eta mutilak.

Oinarrizko dantzen ikastaroa egingo dute uztailean zehar

IKAZTEGIETA // Gazte Taldeak oinarrizko dantzen ikastaroa antolatuko du. Zeretik hasi nahi dutenek edo oinarrizko ezagutza dutenek hartu dezakete parte. Lehenengoak hilaren 2tik 27ra ariko dira eta besteak hilaren 16tik 27ra. Astelehen eta asteazkenetan ariko dira, 19:30etik 21:00etara, kiroldegian.

Erretiratuen eta umeen otorduetarako izena emateko aukera

ALEGIA // Alegiako Karmen festetan umeen herri bazkaria eta erretirodunen hamaiketako egingo da aurten ere, biak uztailearen 16an. Izen emateak bihar amaituko dira. Erretiratuen hamaiketarako kultur etxera eta erretirodunen egoitzara joan behar da. Eta haurren bazkarirako txartelak kultur etxean daude.

Sanpedroak amaituta, Santamañako jaietarako prest

Santamaña elkarteak eta Asteasuko Udalak antolatuta, Santamañako jaiak ospatuko dituzte uztailearen 14tik 22ra, astebete luzez

Erredakzioa Asteasu

Uztailearen 21ean, larunbatez, herri bazkaria egingo dute. Bazkarirako txartelak aurrez eskatu beharko dira honako bi telefono zenbaki hauetakoren batera deituz: 649506825 (Arkaitz) edo 686788260 (Josefina). Uztailearen 19a baino lehen eman beharko da izena.

14:00etan egingo dute bazkaria, Ostolaza eta Lutxurdio trikitilariak, eta Unai Mendizabal eta Haritz Mujika bertsolariek alaituta. Menurako, sarrerako hotzak, paella, txuleta, postrea, kafea eta kopa izango dituzte. Helduek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta 12 urte arteko haurrek 15 euro.

EGITARAUA

Uztaileak 14, larunbata

17:00. I. Orientazio Proba Herrikoia. Izen-ematea, (16:30-16:45).

Uztaileak 15, igandea

10:30. Santamañako XVIII. Kros igoera. **16:30.** Santamañako XXIII. Mus Txapelketa (15:45-16:15 izen-ematea).

Uztaileak 18, asteazkena

10:30. Txupinazoa. **11:00.** Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako. **13:00.** Herrikirolak (bertako gazteak). Ondoren Bertsolariak: Irazu eta Peñagarikano. Trikitilariak: Izer, Alabier eta Lutxurdio. **17:30.** Kalejira. Gauean Izer, Alabier eta Lutxurdio.

Uztaileak 21, larunbata

12:00. Haur jolasak. **14:00.** Herri bazkaria, Ostolaza eta Lutxurdio trikitilariak, eta Unai Mendizabal eta Haritz Mujika bertsolariek alaituta. **18:00.** Toka. **Gauean.** Ostolaza eta Lutxurdio trikitilariak.

Uztaileak 22, igandea

11:30. Meza nagusia. **Ondoren.** Herrikirolak. Iparraldeko jokoak: Jose Martin Bustinza *Tubi* eta Yon Loiola. Aimar Irigolien eta Beñat Telleria. Ondoren, Laja II. eta Narbaiza. **18:00.** Erakustaldia: herriko harri tira taldea eta astoa. **Afal aurretik.** Tranpazuloren jaitsiera. **Gauean.** Laja II. eta Narbaiza trikitilariak.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Jokin Etxeberria amasarrak Gipuzkoako txapela irabazteko aukerak izango ditu igandean. A. IMAZ

Asteasuko belarrak finalaren zain daude

Gipuzkoako Sega Txapelketaren finala igandean jokatu da 12:00etan, Bulano baserriko zelaietan

Asier Imaz Asteasu

Gipuzkoako Sega Txapelketaren finala igandean jokatu da, Asteasuko Bulano baserriko belardietan. 12:00etan hasiko dira lanean lau segalariak. Horietatik bi Tolosaldekoak: Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Jokin Etxeberria, Bidaion bizi den amasarra. Hauekin batera Igor Esnaola legorretarra eta Julen Gabirondo urnietarra ariko dira.

Finalerdietan ordu erdiko lana izan zuten bezala, finalean ordubeteko izango dute. Belar kilo gehien moztu dituenak jantziko du 2018ko Gipuzkoako txapela. Iaz, Alegian bizi den *Urki* orendaindarrak eraman

zuen etxera saria. Aurten ez zuen lortu finalerdietatik pasatzea Jexuxmari Ormaetxeak.

Uztailaren 8ko finala ikusteko 20 euro ordaindu beharko da.

FINALERDIETAN EZUSTEKOAK

Gipuzkoako txapelketa ohiko eran jokatu da igandean. Finalerdietan txapelduna kanpoan geratu zen, baina ezusteko nagusia Andoni Goikoetxea izan zen. Gazteluarra sega mundutik aparte egon ondoren, behartuta, aurten itzuli da. 30 minutuko lanean erakustaldia eman zuen Goikoetxeak, saioiko dagoela erakutsiz. Orain, ordubeteko lanean nola moldatzen den ikusi beharko da.

Finalerdietan kilo gehien moztu zuena Jokin Etxeberria izan zen, alde handiarekin gainera. Amasarrak 1.889 kiloko marka jarri zuen, aurten txapela irabazteko aukerak dituela erakutsiz. Goikoetxea bigarren izan zen, 1.759rekin. Beste multzoan Julen Gabirondo nagusitu zen, igandean txapela irabazteko hautagai nagusia, 1.518,5 kilorekin. Bere atzetik ordubeteko lanean 30 minutukoan baina hobeto moldatzen den Igor Esnaola sailkatu zen, 1.447,5 kilorekin. Ohiko modalitatean legorretarraren azken urtea izango da, sega utziko duela iragarri baitzuen Gipuzkoako Azkartasun proba irabazti ondoren.

Esku pilotan bi partida handi, gaur Bearzanan

19:00etan hasiko dira Santio Jaien barruko txapelketako lehiak

Erredakzioa Amasa-Villabona

Villabonako Santio Jaien barruko pilota txapelketa jokatzeko hasi zirenetik 4 aste pasa dira. Gaur, final-zortzirenetako partidak jokatu dira 19:00etan, Bearzana pilotalekuan. Aurreneko partida Urkizu-Labaka eta Jaurregi-Aranbururen artekoa izango da. Bigarrena, Barandiaran-Santxezek eta Ollo-Mariezkurrenak jokatu dute. Nagusien mailako lehiak izango dira.

Final-laurdenetan ondorengo bikoteak daude aurkari zain: Lizaso-Esnaola (Behar Zana) etxeko pilotariak; Urmeneta-Urruzola (Eple-Atzapar) iazko txapeldunak; Azpeiti-Ilunpeko Apezetxea-Murgiondo eta Urbietza-Aizpitarte Behar Zana-Hernani ordezkariak.

BOST TXAPELKETA

Binakako nagusien mailakoa ez da jokatzeko ari diren txapelketa bakarra, Behar Zanak guztira bost antolatu baititu.

Olaederra kiroldegiko frontoian, uztailek 24ko final egunearte, Eskuz Binaka Txapelketa Herrikoia eta Frontenis Banakako Txapelketak jokatzeko ari dira

18:30etatik aurrera. Astelehenero eta asteazkeneko frontenis banakakoak jokatzeko ari dira. 13 mutilek parte hartu dute.

Asteartero eta ostegunero berriz eskuz txapelketa herrikoia jokatzeko ari da, pilota goxoaz. Bertan bederatzi bikotek parte hartu dute.

Bearzana frontoian berriz hiru txapelketa jokatzeko ari dira 18:30etik aurrera: Pala emakumeak, pala gomaz (bi neska ere badabilza mutilekin batera) eta eskuz Santio txapelketa federatuenak.

Azken torneo honetako txapeldunek gainera, Gabonetako Antton Pebet txapelketarako txartela irabaziko dute. Final hauek uztailearen 27an jokatu dira.

Astelehenetan eta asteazkenetan, pala gomaz ari dira. 11 bikotek parte hartu dute. Asteartean eta ostegunetan Santioetako nagusien txapelketa jokatzeko ari da eta 20 bikote ari dira jokoan. Eta ostiraletan emakumeak palaz ari dira, bertan, zazpi bikotek parte hartu dute.

Beraz, 107 pilotari ari dira festetako txapelketa horretan parte hartzen.

Altuna III.a eta Bengoetxearen artekoa, etzi

A. Imaz Amezketak

Lau t'erdiko San Fermin Txapelketako finala larunbatean jokatu da Iruñeko Labrit pilotalekuan. Aurten finalaren ordua ordu erdi aurreratzea erabaki dute enpresek, eta Altuna III.a eta Bengoetxea VI.aren artekoa 11:00etan hasiko da. Labrit lepo betetzea aurreikusten da, San Fermin egunean.

Finalera iristeko Jokin Altunak Ezkurdia utzi zuen kanpoan

finalerdietan. Aurrez, Erik Jakaren aurka jokatu behar zuen, baina partidaren lizartezarrak min hartu zuen. Bengoetxea VI.ak Olaiola II.a utzi du txapelketatik kanpo finalera iristeko. Aurrez, gauza bera egin zuen Laso eta Urrutikoetxearekin.

Iaz, Jokin Altunak finala jokatu zuen Aimar Olaiolaren aurka. 22-18 galdu zuen amezketarrak. Aurten arantza ateratzen saiatuko da buruz buruko txapelduna.



OLASAGASTIRI ITZALA EGIN NAHIAN

Irailaren 29an, Azpeitian, 1990etik jokatu ez den Euskal Pentatloia jokatu da. 'Arria V', 'Arria VI', Luis Txapartegi, Jon Ander Maiza, Jon Gisasola, Xabier Zaldúa eta Alex Txikon ariko dira lehian. Harri-jasotzen, giza proban, aizkoran, txinga eroaten eta korrika egin beharko dute. Bost aldiz jokatu da euskal pentatloia, eta Olsagasti da hiru txapelekin nagusi. M.O./U.H



OSTEGUNA, 2018KO UZTAILAK 5

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetalea@ataria.eus

Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



May Gorostiagari pasa den astean egin zioten omenaldiko une bat. ATARIA

Ingurukoen ezusteko omenaldia jaso du May Gorostiagak Amaroizko Antzerki Astearen barruan, 20 urteotan egin duen lanaren aitortza gisa. Bea Larrañaga eta Irantzu Mantxok ere jaso dute esker ona.

Gorostiaga omenduz

Erredakzioa Tolosa

2 1:30. Amartz Auzoa. Ilargi beteak auzoa argitzen duen bitartean, amaitzean da Mago Diego, Imanol Ituño, Barbara Rivas, Pello Añorga eta Coco Barrazaren *Pintxopotea* troa ikuskizuna.

Bat-batean alfonbra gorria jarri dute auzo lokalaren sarrean, eta alfonbraren bi aldeetan bildu dira magoak, txotxongilariak, trapezistak, mimoak, ipuin kontalaria, zirkuko pro-

tagonistak, pailazoak, bertsolariak, idazleak, antzerkilariak... Ezustean harrapatu dute May Gorostiaga.

- *Baina zer da hau?*

- Merezitako omenaldia, zuretzat.

Zinta moztu, eskuak lurrean marraztu... Modu horretara, emozio biziz eta txalo artean, May Gorostiagak egiten duen lana eskertu nahi izan dute auzokide eta lagunek Amaroizko Antzerki Astearen 20. urteurrenean. Hitz goxoek erabat hunkitu dute, auzoko zapia eta txapela

jantzita daramatzan May Gorostiaga.

«Merezi du, gure maisua da, eta 20 urteko ibilbide honetan sekulako lana egin du. Bere alboan egotea zoragarria da, ideia mordoa duelako, eta beti gertu izaten dugulako. Diru laguntzarik gabe egiten den antzerki astea da, eta antzerki astea aurrera ateratzeko Mayk egiten duen lana izugarria da», azaldu dute omenaldia prestatu duten lagunek.

LARRAÑAGA ETA MANTXO BIDELAGUN

Ezin ahaztu Bea Larrañaga eta Irantzu Mantxoz. Gorostiagaren alboan antzerkia sortzen urteak daramatzate biek eta merezitako lore sorta bana jaso dute beraiek ere.

Ezin emozioak alde batera utzi. Urrun baina gertu dauden lagunek prestatutako bideo proiektzioak barreak eta negarrak sortu ditu bertan daudenen artean. Azken mezu bat ere badute guztiek: *May, jarrai ezazu ibiltzen, eta ez utzi zure hegoak astintzeari. Beste 20 urteren bila. Maite zaitugu!*



zozketak

Atarikideentzat **liburu bat** daukagu

Uxue Alberdiren
'Jenis Joplin'
liburua



Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

AGENDA

Deialdiak

Asteasu. lu

Tolosa. Iurramendi Auzoko Festak.

18:00. Ezkaratzen arteko pikea (haurrak eta helduak). **21:00.** Afaria (bakoitzak etxetik ekarrita).

Ibarra. Adineko pertsonak eta dispertsioa, hitzaldia. Dispertsioaren hegiak: haurrak eta dispertsioa, adineko pertsonak eta dispertsioa, dispertsioaren biktimak eta gaixo larri diren presoak eta dispertsioa. 19:00etan, kultur etxean.

Larraul. Liburutegian, udaletxeko goiko solairuan, Maddi Etxeberrira herritarrek Zein usain dute oroitzapenek? liburu aurkeztuko du, 18:30ean.

Tolosa. *Isla de perros* filma. 19:15 eta 21:45. Zine Foruma. Jatorrizko bertsoan. Leidorren. Megasakiko herrian txakur gripearen izurritea zabaldu da. Horren ondorioz, agintariek txakur guztiak irla batera eramatea erabakiko dute. Hortik aurrera, txakurrak bakartuta biziko dira. Atari gaztetxoak, berriz, ez dago prest Spots bere lagun fidela galtzeko.

Tolosa. Orixe BHIko gurasoentzako batzar irekia deitu dute, 18:30ean, kultur etxean.

Tolosa. *Buho eta Maravillas* erakusketa. Topic-en. Sevillako bi txotxongilo taldeek, Buho eta Maravillas, 2007. urtean egin zuten bat, eta erakusketa honetan 30 urteko ibilbidearen adierazgarriena ikusi ahal izango da. Teknika, material eta estilo ezberdinetako 100 txotxongilo baino gehiago. Sortze-artistiko baten ondare aparta. Artisau lanaren isla, profesionaltasunez, errespetuz eta arreta handiz egindakoak.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzea-ekin eguraldi iragarpena, Olatz Godoy *Kale Kantotik* eta Idoia Apaola-za psikopedagogoa, besteak beste.

11:00-12:00. Hamaiketakoak.

Ibarraldeko albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaiak.

13:00. Erakutsiz Ikasi. Uzturpe.

16:00-18:00. Zebrabidea. Arrosa Sarearen magazina.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.
20:00. Erakutsiz Ikasi. Uzturpe.
21:00. Ataria iluna.

28 KANALA

12:30. Elikatu.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Ikusi Irratia.

23:00. MDK Swim 2018.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7.

Telefonoa: 943 670648.

Gauekoa. Morant Barber, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi egonkorragoa izango da, baina giro motela izango dugu. Goizean eta azken orduetan laino tapaki handia izango da, non euri txiki moduan edo langar moduan euri zaparradaren bat izango dn, goizean goiz punturen batean ekaitzak jotzea baztertu gabe. Egunekeo erdiko orduetan giro argiagoa izango da. Hai-zeak ipar-mendebaldetik joko du, bizi eta tenperatura altuena 20-22 gradu bitartean errendituko da.

Bihar. Giroa politagoa izango da. Egun osoan zehar hodeigune batzuk izango diren arren, giro lasaia nagusituko zaigu, nahiz eta azken orduetan ekaitzen bat garalitekeen. Hala ere, ekaitz hauek ez dute garrantzia handirik izango. Haizeak ipar ukitu bat izango du eta tenperatura igo egingo da, 23-25 gradu epel eta atseginetan geratuz.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.